

## BESTELAKO XEDAPENAK

### ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

## 3048

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 23koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez ebazpen honen huts-zuzenketa egiten baita: Ebazpena, 2020ko uztailaren 2koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioa, Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeei eta landunei zuzendutako 2020-2023 prestakuntza-programazioa egiteko.*

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen abenduaren 23ko 217/2008 Dekretuak 18.2.c) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak maila bereko xedapen edo ekintza batez zuzenduko dira, baldin eta nabarmenak ez badira eta, horiek zuzentzearen ondorioz, agiriaren edukia edo esanahia benetan edo itxuraz aldatzen bada.

Horrelako hutsak ikusi dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren 2020ko uztailaren 2ko Ebazpenean, zeinaren bidez argitara ematen baita Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioa, Euskal Autonomia Erkidegoko langile langabeei eta landunei zuzendutako 2020-2023 prestakuntza-programazioa egiteko. Ebazpena 2020ko uztailaren 20ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen, 141. zenbakian. Eta jarraian zuzendu egiten dira hutsak:

– 2020/2849 (58/37) orrialdean, III. eranskinaren b.2.1 atalean, prestakuntza-espezialitate baten kodea zuzendu da; hortaz, honela dio:

| Lanbide-arloa | Kodea      | Izena  | Maila | Orduak | B modulua | Balorazioa | Modalitatea  |
|---------------|------------|--|-------|--------|-----------|------------|--------------|
| POS           | FCOV0001OV | 1. mailako lanbide-ziurtagirien aurretiko funtsezko kompetentziak: | 0     | 150    | 1,34      | 36         | Presentziala |

Baina hau esan behar du:

| Lanbide-arloa | Kodea      | Izena   | Maila | Orduak | B modulua | Balorazioa | Modalitatea  |
|---------------|------------|---|-------|--------|-----------|------------|--------------|
| POS           | FCOV0005OV | 1. mailako lanbide-ziurtagirien aurretiko funtsezko kompetentziak | 0     | 150    | 1,34      | 36         | Presentziala |

2020ko uztailaren 29a, asteazkena

– 2020/2849 (58/36) orrialdean, III. eranskinaren b.2.1 atalean, ez da prestakuntza-espezialitate bat aipatu, eta jarraian erantsi da:

| Lanbide-arloa | Kodea      | Izena   | Maila | Orduak | B modulua | Balorazioa | Modalitatea  |
|---------------|------------|---|-------|--------|-----------|------------|--------------|
| POS           | FCOO0001OV | Lan-ingurunera bideratutako kompetentzia soziopertsonalak | 0     | 140    | 1,34      | 36         | Presentziala |

– 2020/2849 (58/42) orrialdean, III. eranskinaren b.2.2 atalean, hurrengo prestakuntza-espezialitatea ezabatu da, b.2.1 atalari dagokiona, eta atal horretan sartuta dago:

| Lanbide-arloa | Kodea     | Izena                                  | Maila | Orduak | B modulua | Balorazioa | Modalitatea  |
|---------------|-----------|--|-------|--------|-----------|------------|--------------|
| ELE           | ELEQ04EXP | Gauzen internet: Raspberry eta Arduino | 2     | 100    | 2,74      | 70         | Presentziala |

Vitoria-Gasteiz, 2020ko uztailaren 23a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JUAN JOSE BORJA BELANDIA FRADEJAS.